



Durangoko Merinaldearen  
Amankomunazgoa  
Mancomunidad  
de la Merindad de Durango

Prentsa zerbitzua

## **AMANKOMUNAZGOAK DIRU-LAGUNTZA BERRIAK BIDERATUKO DITU KIROL ELKARTEEN ARTEAN ETA EZINTASUN PSIKIKOA DUTEN PERTSONAK GIZARATERATZEKO**

**Kirol arloko diru-laguntzak 35.500 eurotako izango da eta atletismoko pistan, Abadiñoko trinketean edota belodromoan ekintzak burutzen dituzten durangaldeko elkarteentzat izango dira.**

**Ezintasun psikikoa duten pertsonak gizarteratzeko laguntza 15.000 eurotako izango da eta aisiko zein familia arteko erlazioak sendotzeko ekintzak antolatzeko izango da.**

**Kasu bietan, urriaren 21ean amaituko da eskaerak aurkezteko epea.**

*Durango, 2013.eko urriaren 4an.* Durangoko Merinaldeko Mankomunitateak diru-laguntza berriak bideratuko ditu eskualdean. Helburuak, alde batetik kirol arloko ekintzak sendotzea izango da eta bestetik arazo psikikoak edo ezintasuna dituzten pertsonak gizarteratzeko izango da.

Lehenengo kasuan, 35.500 euro banatuko ditu Amankomunazgoak, administrazio honek dituen azpiegituretan aritu direnen eskualdeko elkarten artean. Hain zuzen 31.500 euro urtean zehar atletismoko pistan kirol ekintzak burutu dituzten elkarten artean bananduko dira, 3.000 euro berriz belodromoan aritu direnen artean eta gainontzeko 1.000 euro Abadiñoko trinketean egon direnen artean.

Laguntzak hauek lortu ahal izateko, elkarteek eskaerak bidali behar dituzte urriak 21 baino lehen. “Diru honen helburua gure eskualdeko elkarteak laguntzea da hauek

ekintza zein programa desberdinak antolatu dezaten, ditugun azpiegiturak erabiliz” azaldu du, Amankomunazgoko lehendakaria den Oskar Zarrabeitiak.

## **GIZARTERATZEAREN ALDE**

Kirol arloko diru-laguntzez gain, Amankomunazgoak beste 15.000 euro bananduko ditu ezintazun psikikoa duten pertsonak gizarteratzeko lan egiten duten eskualdeko elkarten artean banatzeko. Helburuak aisia zein familiak laguntzeko ekintzak burutzea izango dira, asteburuetan gehien bat... irteerak, oporrak...

“Laguntza hauek elkarte eta fundazioko mugimendua bultzatu nahi ditu, mugatua edo murriztuta duten pertsonak lagunduz euren senitartekoei lasaitasun guneak sortuz” esan du Zarrabeitiak.

Gainontzeko diru laguntzak bezala, eskaerak aurkezteko epea urriaren 21ean amaituko da.

Kasu bietan eskualdeko herrietako kirol zein elkarte eta irabazi asmorik gabeko elkarteentzat izango dira diru laguntza hauek

Informazio gehiagorako zein oinarriak ezagutzeko Mankomunitateko web orrialdera jo daiteke, [www.mdurango.org](http://www.mdurango.org).